



**DSPM SOLUZIO BAT ESKURATZEKO ETA LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-
ZENBAKIA: 3222**

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	David Alonso Villafáfila
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: DSPM SOLUZIO BAT ESKURATZEA ETA LAGUNTZA EMATEA. DSPM soluzioa zibersegurtasun-teknologia bat da, eta erakundeei laguntzen die datuak identifikatu, babestu eta kudeatzen, batik bat datu konfidentzialak eta modu berezian tratatu behar direnak.

2.- Zer beharri erantzun behar zaien: BBUPEk Windows fitxategien zerbitzari batzuk ditu eta bertan gordetzen ditu erabiltzaileek, nork bere baimenen arabera, erabiltzen dituzten datu ez egituratuak. Gainera, erabiltzaileak Office 365 (Teams, SharePoint, OneDrive...) plataformara sar daitezke —hor ere gordetzen da enpresaren informazioa, zenbait biltegitan—, bai eta adimen artifizialeko tresnetara ere (Copilot, adibidez), informazio hori ustiatzeko. On-premise nahiz on-line biltegi horietan dagoen dokumentazioaren bolumena eta aniztasuna direla eta, soluzio bat eskuratu beharra dago, batetik, informazio hori nola eskuratzen eta erabiltzen den kontrolatzeko eta, bestetik, informazio hori sailkatzeko, hartara hobeto babestu ahal izateko. Bestalde, halako soluzio baten beharra dago BBUPEk bete behar dituen lege-arauak betetzeko, hala nola DBEO, ENS eta NIS2.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzearen justifikazioa: Espedientea lote bakarrean lizitatu behar da, berau ezin baita irizpide bakar bati jarraikiz zatitu. Produktu bat hornitzea, konfiguratzea eta mantentzea da xedea, eta zereginok enpresa berak egin behar ditu.

4.- CPV:

CPV kodea: 48730000

Deskribapena: Segurtasun-software paketeak.

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:



B.- KONTRATUAREN XEDEA

- ☐ BAI
☒ EZ

6.- Izaera juridikoa

- ☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

LAUROGEITA HAMASEI MILA SEIEHUN EURO
(96.600 €)

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: EHUN ETA HIRUROGEITA BOST MILA EURO (165.000,00)

Loteak:

- ☐ BAI
☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

- ☐ Oroharreko prezioa
☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

2026. urtea PARTIDA: 92005.21501 ZENBATEKOA: 30.400,00 euro (BEZik gabe)
2027. urtea PARTIDA: 92005.21501 ZENBATEKOA: 32.200,00 euro (BEZik gabe)
2028. urtea PARTIDA: 92005.21501 ZENBATEKOA: 32.200,00 euro (BEZik gabe)
2029. urtea PARTIDA: 92005.21501 ZENBATEKOA: 1.800,00 euro (BEZik gabe)

5.- Prezioen berrikuspena:

- ☐ BAI
☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

- ☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Lizentziak urtero egiaztatuko dira aldi bakoitzaren hasieran.
Laguntza-zerbitzuak hileroko egiaztatuko dira.

8.- Konturako ordainketak: Ez dagokio

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: 36 HILABETE

2.- Epe partzialak.

- ☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

- ☒ BAI ☐ EZ

HAMABI (12) HILABETEKO BI (2) LUZAPEN.

4.- Bermealdia: Ez da aplikatzekoa



D.- KONTRATUAREN EPEA

5.- Kontratua exekutatzeko tokia: BBUPen instalazioak

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumenak, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko du gutxienez. (32.200 €, BEZik gabe)

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Interesdunak azken hiru urteotan egin dituen kontratuaren xede den lanaren mota edo izaera bereko lanen zerrenda aurkeztu beharko da, ongi egin izanaren ziurtagirien bidez bermatuta. Eta gutxienezko baldintza hau bete beharko da: exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urteko zenbatekoaren % 70en parekoa edo handiagoa izatea

Produktua CCN-CERTen STIC produktu- eta zerbitzu-katalogoaren barruan (CPSTIC) egiaztatuta egon behar da.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Soluziorako proposamen teknikoak aurkeztu eta baloratuko da, eta honako alderdi hauek aurkeztuko dira:

- Eskainitako soluzioa
- Laguntza-zerbitzuak

Eskainitako soluzioa



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskainitako soluzioaren honako alderdi hauek zehaztuko dira:

- Arkitektura.
- Osagaiak.
- Funtzionaltasunak.
- Segurtasuna
- Erabilgarritasuna.
- Kudeaketa-tresnak.
- Estatistikak eta txostenak.

Eskainitako soluzioa lizentziazteko modua ere zehaztuko da.

Martxan jartzeko proiektua

Soluzioa martxan jartzeko egindako planteamendua zehaztuko da, gutxienez honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Proiektu-plana.
- Fasekako plangintza.
- Bete beharreko mugarriak.
- Egin beharreko probak.
- Sortu beharreko dokumentazioa.
- BBUPeko teknikariak trebatzea.
- Proiektuari esleitutako ekipo teknikoa.

Laguntza-zerbitzuak

Soluzioaren laguntza emateko egindako planteamendua zehaztuko da, gutxienez honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Laguntza zuzentzaile/erreaktiboko zerbitzuak. Mantentze- eta laguntza-zerbitzuaren helmena adierazi behar da, eta argi deskribatu behar dira hauek:
 - Zerbitzuaren eredua, kontratuak dirauen bitartean mantentze zuzenketazkoa/erreaktiboa emateko zerbitzua exekutatzeke esleitutako ekipo teknikoa adierazita.
 - Laguntza-zerbitzuak emateko metodologia eta prozedurak:
 - Eskatutako zerbitzuak emateko prozedura operatiboak.
 - Komunikazio-fluxua eta -kanalak.
 - Metrikak eta zerbitzu-mailako akordioak.
 - Emandako zerbitzuaren kalitatea kudeatzea, kontrolatzea eta ziurtatzea.
 - Kontratuaren kudeaketa eta jarraipena.
- Laguntza prebentibo/ebolutiboko zerbitzuak. Eskaintzan sartzen diren atazen xehetasunak adierazi behar dira, bai proaktiboak, bai ebolutiboak. Gutxienez, hauek izango dira:
 - Ekipamendu eta politiken inbentarioa.
 - Jakinarazitako gorabeheren txostenak.
 - Plataformari buruzko gomendio ebolutiboak edo jaso beharreko metrikak eta sortu beharreko dokumentazioa.
 - Zerbitzuari esleitutako talde teknikoa.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, l. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskainitako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- a) Eskaintzak homogeneizatzeko prezioen zerrenda:
- Produktuen lizentziak.
 - Laguntza-zerbitzuak

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAREN 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoa aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

☐ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren beherapen-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + BBB) / 2$	48 puntu
BBB	47 puntu
$0,8 \times BBB$	46 puntu
$0,6 \times BBB$	44 puntu



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Lizitazio-aurrekontua..... 0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren beherapen-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko beherapen-ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko beherapen-ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren beherapen-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi beherapen bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi \leq BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi \leq (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Eskaintako soluzioa-25
 puntu

Martxan jartzeko proiektuak-10 puntu

Laguntza-zerbitzuak-15 puntu

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailleak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaille bakarria egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaille egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaille egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarria baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako beherapena.
- Lau lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertze arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

ESKAITZATIK KANPO UZTEA ERAGITEN DUTEN EZ-BETETZE TEKNIKOAK

Plika baztertze arrazoia izango da Preskripzio Tekniko Partikularren Agirian eskatutako edozein ezaugarri tekniko ez betetzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

PTPAⁿ zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

Zigorak kalkulatzeko, Preskripzio Teknikoen Orriaren Zerbitzu Mailen Akordioaren atalean azaldutako denborak aplikatuko dira, betiere adjudikaziodunak proposamenean denbora txikiagoak, BBUPi onuragarriago zaizkionak, proposatu ez baditu.

Martxan jartzeko proiektuaren (1. fasea) gehieneko epearen gainean atzeratutako aste bakoitzeko, BBUPez bestelako kausak tarteko direnean, ehuneko bateko (% 1) zigorra ezarriko da lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren gainean.



M.- ZIGOR ZEHATZAK

«Kritikoa» edo «Presakoa» den eta zerbitzu-mailako akordioetan adierazitakoa gainditzen duen gorabehera bakoitzeko, BBUPez bestelako kausak tarteko direnean, ehuneko bosteko (% 5) zigorra ezarriko da laguntza- eta mantentze-zerbitzuen hurrengo ziurtagirian.

Denboren zenbaketa ez da etengo ezinbesteko kasuak edo BBUPi zuzenean egoztekoak egon ezean.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasieran aurkezteko betebeharra
- ☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
- ☐ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

PTPAn adierazitakoa